

Pirata zintzoa¹

Esku Luze pirata-umea zen, piraten seme, biloba eta birbiloba. **Benetan, berak inoiz ez zuen ezer lapurtu, ez zion itsasontzi bakar bati ere eraso egin**, baina familian segurutzat jotzen zuten pirata bikaina izango zela. Hala ere, Esku Luzerentzat ez zen batere erakargarria jendeari lapurtzea. Izan ere, txikitan, lehengusu batek gustuko zuen jostailua lapurtu zion eta ez zitzaion batere gustatu. Hazi ahala, **estutu eta larritu egiten zen Esku Luze, edozein unetan bere benetako pirata-nortasuna azaleratu** eta nahitaez lapurreta, abordatze eta harrapaketa arituko zela-eta. Goizero, esnatzean, ispiluari begiratzen zion eraldaketa izugarri hura gertatu zen ala ez ikusteko. **Baina goizero, bezperan bezala, pertsona on eta zintzoaren itxura zuen.**

Denboraren buruan denak konturatu ziren Esku Luze ez zela besteak bezalako pirata, baina familian, belaunaldiz belaunaldi, hain pirata bikainak izan ziren non inor ez zen ez zela pirata esatera ausartzen. “Pirata ona” da baizik ez zuten esaten. **Eta etengabe esaten zuten, nahiz eta Esku Luzek medikuntza ikasi eta hiriko gaixoak zaintzen jardun.**

Hala ere, Esku Luze beldur zen, egunen batean pirata bihurtuko zela-eta, eta goizero begiratzen zion ispiluari. **Eta egun batean, ispiluaren aurrean jarri eta agure zahar baten irudia ikusi zuenean, bere seme-alaba eta biloba bakar bat ere ez zela pirata izan gogoratzean, honetaz konturatu zen: ez berak ezta inork ere ez zuela zertan izan pirata edo beste edozer era naturalean edo derrigorrez. Bakoitzak nahi zuena egin zezakeen bere bizitzarekin! Berak zer izan nahi zuen aukeratu zuen, pirata izateari uko egin zion, eta horrek egundoko poza eragiten zion**

¹ www.cuentosparadormir.com –tik hartuta